

KULTURA

MITXELENA EUSKAL IDAZLE: *MITXELENAREN IDAZLAN HAUTATUAK ETA BESTE*

1. Sarrera

Hamasei bat urte izango nituen, Ondarroako institutuan ikasten ari nintzen. Orduko batxilergoko gai guztiak gaztelaniaz nituen, euskara ikasgaia aukerakoa zen: nahi zuenak hartzen zuen, baina hartu ezik ez zen ezer gertatzen. Euskaltzaleen artean Mitxelenak ospe handia zeukan. Gure zenbait irakaslek Salamancan izan zuten irakasle eta ezaguna zuten. Euskalduna nintzen burutik behatzera, etxean ez nuen besterik entzuten eta egiten, baina alfabetatu gabeko euskalduna nintzen. Euskara estandarra ikastea, euskara batuaren arauak jakitea, zenbait euskaltzaleren nahia zen. Garai hartan, 1976-1978 urteetan, hainbat euskal liburu irakurri nituen: *Jon Miranderen idazlan hautatuak*, Orixeren *Euskaldunak*, Santi Onaindiaren *Milla euskal olerki eder*, J. M. Satrustegiren *Euskaldunen seksu-bideak*, Jon Miranderen *Orboituz*, Txillardegiren *Sustrai bila* eta *Oinarri bila*, Txomin Agirrereren *Kresala* eta *Garoa*, Lizardiren *Biotz-begietan*, *Anaitasuna* eta *Zeruko argia* aldizkarietako zenbait ale, Pott bandaren lehen aleak, eta abar.

Liburu guztien artean, ordea, aparteko mira eta eragina izan zuen *Mitxelenaren Idazlan hautatuak* izan zen. Liburua erosi eta garai hartako egutegi bateko azalarekin estali nuen. Liburuan bertan ezagutzen ez nituen hitzak lapitzez markatzen nituen. Institutu garaia bukatu zitzaidanean, 1978ko udan, Joan

Ajuriagerra hil zen ondoko egunean, abuztuaren 26an, Mitxelena-ren artikulu bihozti bat irakurri nuen *Deia* egunkarian: *Hire itzalak gu baitan dik lurmen*. Artikulua egun batetik bestera idatzia zen, berotan. Artikulua bihotzeko lagun eta gidari bati egindako aitortza barrenkoia zen. Artikulu hura ez nuen gerora jasorik ikusi Mitxelena-ren euskal lanez hornitutako antologia zein bildumetan, ez K. Mitxelena, *Euskal idazlan guztiak*, Donostia 1988, I-IX liburuetan, ez gainerakoetan ere¹.

Gaur egun lehen aldiz *Mitxelena-ren idazlan hautatuak* irakurri nuenetik berrogei urte iragan badira ere, nire ale hura altxor bat bezala gordetzen dut. Gaztetan eragina izaten duten idazleei aparteko maitasuna hartzen zaie. Geroztik beti izan naiz Mitxelena-ren euskal idazlanen irakurlea.

2. Mitxelena-ren *Idazlan Hautatuak*

Aurten betetzen dira Euskatzaindiaren ehun urteak eta 1968ko Arantzazuko bileraren berrogeita hamar urteak. Euskara batua arautu eta finkatzeko bilera sonatu hark burruka, hika-mika eta eztabaidak ezezik, ondorio eta emaitza ederrak ere ekarri zituen.

Patxi Altunak, 1972an, Errenteriako maisu eta idazle handiaren euskal lanez prestatu zuen *Mitxelena-ren idazlan hautatuak* liburuak ur nahasi haietan ispilu eder bat eskani zuen. Zenbaitek dudan jarri bazuten ere Mitxelena-ren jakituria eta itzala, arrazoi isilgarririk ederrena Mitxelena-ren lanez osatutako lorategi bat izan zen. Liburua antologia txukun eta ondo atondu bat zen hamar ataletan banatua. Liburuaren helburuetako bat euskara batuaren arauak zehatz testu eredugarri ba-

¹ Beste zenbait lan ere ez ditut aurkitu. *Euskal idazlan guztiak* I-IX liburuetan, esaterako, ez dator J. Etxaideren *Amasei seme Euskalerrri'ko* (1958) liburuari egin zion hitzaurrea ezta *Estudio de las fuentes del Diccionario de Azkue* (1970) liburukoa ere. Bi horietako azkena, Azkueri eskaini ziona, bere laburrean antologikoa da.

tean aplikatzea izan zen, batetik; beste helburuetako bat Mitxelenaren euskal lan bikainen lorategi bat eskaintzea. Diodanaren erakusgarri ezin hobea da Patxi Altunak berak jarri zuen kontrazala:

Egungo eguneko euskal idazlek eskura diezazukeen bildumarik joriena, aberatsena duzu eskuetan, irakurle! Egungo eguneko euskal idazlek eskaini diezazukeen euskararik jatorrena, batuena, zuzenena eta baduzu eskuetan.

Gaurko –betiko?– euskarak izan behar lukeenaren ispilurik garbiena, gardenena, ederrena, ene ustez. Hemen duzu –dugu– Euskara Batuaren errainu lausogabea; Mitxelenaren iritziz izan behar lukeenarena. Baina axalari baino mamiari begiratu nahiago baduzu –hala behar zenduke–, hemen dituzu leheretzanda egiteko zori larrian mila gai eta arazori buruzko iritziak eta usteak: erlijioa, herria, euskara, literatura, Europa, Batasuna, gure idazle zahar eta berri, gure asmo eta itxaropen, gure pozbide eta negarbide, gure handitasun eta urritasunei buruzko usteak eta iritziak.

Lehen aipamena ‘euskararik jatorrena, batuena, zuzenena’ bada ere bigarrena are esplizituagoa da letra larriz agertzen baita ‘Euskara Batuaren errainu lausogabea’. Hitz gutxitan garbi adierazten du modu borobilean zertara etorri zen, neurri handi batean, antologia bat prestatzea.

Mitxelenak gaztelaniazko zenbait liburua artean argitaratuak zituen: lehena, *Apellidos vascos* (1953); bigarrena, *Historia de la literatura vasca* (1960); hirugarrena, *Fonética histórica vasca* (1961); laugarrena, *Lenguas y protolenguas* (1963); bosgarrena, *Textos arcaicos vascos* (1964); seigarrena, *Del pasado de la lengua vasca* (1964); zazpigarrena *Estudio de las fuentes del Diccionario de Azkue* (1970). 1972ko urtea, *annus mirabilis* horietako bat izan zen, urte miraritsua bi liburu argitaratu baitzituen euskaraz: lehena aipatu dugun lorategia eta bigarrena *Zenbait hitzaldi*.

Esan beharrik ez dago *Mitxelenaren idazlan bautatuak* euskaraz XX. mendean argitaratu zen liburu gotor eta bikaine-netako bat izan zela. Laurehun orrialdeko liburuan Mitxelenaren 37 lan biltzen zituen, gehienak batez ere EGAN aldizkarian aurreko urteetan argitaratuak. Bilketa-lana ondo egina dago, artikulu guztiak bikainak baitira zein bere estiloan. Horiek bildu beharrean beste hogeita hamazazpi bildu balira ere, ez legoke hautaketa gaizki egina izango, hain dira landu eta zainduak errenteriarraren lanak!

Ene ustez Mitxelenaren lanen lorategi hau eta Bernardo Atxagaren *Obabakoak* liburua XX. mendeko euskal prosazko libururik onenak, eta, era berean, eraginik handiena izan dutenak izan dira.

3. Mitxelenaren *Idazlan Hautatuak*-en gainean hitz bat edo beste

Ezagutzen dugun Mitxelenaren lehen euskal lana, “Euskal literaturaren etorkizuna” izenburuduna, 1951. urtean, *Egan* aldizkarian argitaratu zen. Lehen artikulua izateko, ostera, oso landua eta indartsua da. Mitxelenak berak Luis Martin Santos (1924-1964) idazlearen “Tiempo de silencio” (1962) eleberri-gatik esan zuena esan dezakegu guk ere Errenteriako idazleaz: “lehen kolpean eta urratsean idazle garai” agertu zela. Hona hemen erakusgarri gisa 1951n agertu zen laneko lehen bi pasarteak:

Gizona gizon den ezkerro, zer den galdezka ari da. Etengabeko galdegite au ez da oraindik bukatu, ezta bukatuko ere gizona gizon deño. Erantzunak asko dira; gogo-betekorik, ordea, ez.

Galdera askoren artean, batek kezkatu izan nau bein baño geiagotan. Gere izatearen zatirik barrenena, gereena, zein ote dugu? Gaurko askoren erantzuna alde zurretik jakiña dauka: gure ziñetako izatea, gure nortasuna, ez da guban bestee-

kin batera duguna, besteengandik banatu ta bereizten gaituen izaera berezia baizik.

Bi pasarte hauek euskara batutik hurbil daude, inolaz ere. Aditzen aukeran, esaterako, “dugu”-ren sailekoak dira eta ez “degu”-renak. Patxi Altunak, beraz, 1972an, argitaratu zuenean ez zuen deus askorik aldatu:

Gizona gizon denez gero, zer den galdezka ari da. Etengabeko galdegite hau ez da oraindik bukatu, ezta bukatuko ere gizona gizon deino. Erantzunak asko dira; gogo-betekorik, ordea, ez.

Galdera askoren artean, batek kezkatu izan nau behin baño gehiagotan. Geure izatearen zatirik barrenena, geureena,



K. Mitxelena Ajuriagerraren zerraldo ondoan (Sabino Arana fundazioa)

zein ote dugu? Gaurko askoren erantzuna aldez aurretik jakina daukagu: gure zinetako izatea, gure nortasuna, ez da guggan besteekin batera duguna, besteengandik banatu eta bereizten gaituen izaera berezia baizik.

Testuan huskeria zenbait bakarrik aldatu dira: *den ezkeror> denez gero, ziñetako> zinetako, deño >deino, bein baño geiagotan>behin baino gehiagotan*, eta abar. Mitxelenaren lehen testu honetan, 1951koan, Patxi Altunak bere edizioan sartu ez zuen John Keats poetaren aipu bat dator: *A thing of beauty is a joy por ever./ its loveliness increases; it will never/ pass into nothingness, but stilla will keep/ a bower quiet for us, and a sleep/ ull of sweet reams, and health, and quiet breathing*. Zergatik ez jarri, beraz, autoreak jarri zuen aipu dotore hori lanaren idazburuan?

Mitxelenak bere lehen artikulua argitaratuan euskal literaturaren etorkizunaz hitz egiten duenean bere buruaz ere hitz egiten du, hona hemen azkenaurreko pasarteia euskara batura ekarririk

Gure hizkuntzaren egoera estuak ezartzen digun eginbeharra zaila da, beraz, eta gerorako ez uztekoa. Eginbehar hori betetzeko era askotako laguntzen beharrean gaude. Olerkariak eginbeharra erakutsi digute eta bai aurrera ere –gure lurrrak emango ahal ditu– erakutsiko. Amesgileak nahiko ez direla –zori oneko amesgileak–, egunoroko zeregina noiz eta nola egin behar den erakutsiko diguten gizon burutsuak behar ditugu. Eta beste guztion gain eta edozer baino gehiago, entzule eta irakurleen lana dugu beharrezko. Sortzaileen esanak hauek bihotzetan maitekiro gorde eta ernatzeko lurrik ematen ez badiete, haien mintzoa “tupiki ozen eta txilin burrunbaria bezala” iraupen laburrekoa izango da. Eta entzule-irakurleak gaitzeko gai direnek lanari lehenbailehen ekin beharko, gizonaren gaitasunak gutxitan baizik ez baitira sortzen.

Hona aldatu dugun pasarteko ortografia ez da 1951 urteko *Egan* aldizkarikoa, ez 1972 urteko bildumakoa. 1972koan, esaterako, *bestu* eta *leben bait leben* dator idatzirik; gaur eguneko ortografian, ordea, ‘estu’ eta ‘lehenbailehen’ hobetsi dira. Baina gagozkion mamiari. Mitxelenak aipatzen duen eginbehar estuari bihotz eta arima lotu zena, besteak beste, Mitxelena bera izan zen: *entzule-irakurleak gaitzeko gai direnek lehenbailehen ekin beharko, gizonaren gaitasunak gutxitan baizik ez baitira sortzen* esaldian eta aurrekoetan ez ote da bere buruaz ari? Inork euskaraz idatzi bazuen bera izan zen. Bestela esan, inork ondo eta zehatz bezain aberats euskaraz idatzi badu, Mitxelena bera izan da. Era berean, azken pasartean aipatzen dituen gizon burutsu eta gidarietako bat Mitxelena bera izan zen.

4. Mitxelenaren liburuaren kritikak

Mitxelenaren idazlan hautatuak liburua oso gorai patua izan zen alderdi askotatik. Erdaraz idazten zuen euskalari baten lehen euskarazko liburu mardula izan zelako, batetik. Jendeak bere ikerlan zein liburuak erdaraz idazten zuela egozten zion, kontu jakina denez. Julio Urkixo euskalariak ez bezala, Mitxelenak, ordea, euskaraz asko idatzi zuen Arantzazuko biltzarra baino lehen. Lehen euskarazko liburu gotorra, ordea, bere idazlanen lorategi bat izan zen: 1972koa. 1972ko liburuak espezialista ez ziren askori idazle, euskalari, ikertzaile eta kritikoko baten maila erakusten zien. Patxi Altunak testuen aukera eta sailkapen eta hitzaurrea prestatu zuenean, Mitxelenaren euskal lanaren lorategi bat eginez euskara batu berria ez zela euskerantoa erakutsi nahi izan zuen, batetik; eta Mitxelenak euskaraz argitaratzen ari zen unetik beretik, 1951tik, eta are lehenagotik ere, berak euskara batu bat eratua zuela erakutsi nahi izan zuen.

Jon Bilbaoren *Eusko Bibliografia* lanera jo dugu Mitxelenaren liburuak izan zituen kritika eta erreseinak biltzeko asmo-

tan. Bilaketa horretan lan bakar bat aurkitu dugu, Juan San Martinek *Egan* aldizkarian eskaini ziona (San Martin: 1972). Eibarko idazlearen erreseina berri emate soil bat da, liburua-
ren deskripzioa ematen duena. Iritzi bi behintzat ematen ditu:
bata:

[Mitxelenak] Sakabanaturik zituen artikulu txosten, kritika eta abar, liburu batean bildurik jartzean, Patxi Altunari esker, begien aurrean jartzen digu gure egunotan euskal literaturan asma ditekean libururik aberatsena.

Bigarren iritzia ere guztiz laudoriozkoa da:

Liburu honek [Mitxelenaren idazlan hautatuak] egilearen jakituria bere zabalera eta sakonera guzian adierazten digu, aparteko nabarmentasunes agerrarazi ere. Bere emaitza aberatsak, batez ere egungo pentsaeraren mundutik begiratuaz, euskal literatura mailaz gora darama.

Beste era bateko kritika egin zion Joxe Mari Aranalde adiskideak (Aranalde: 1972). Testu honetan liburua-
ren balioaz gainera euskara batua indartzeko eta aurrera ateratzeko une ezin egokiagoan zetorrela zioen. Hona haren hitzak:

Bihoa lehen oharra euskera batua euskeranto bat izango dela bildur direnentzat. Euskera batua ez dakit zer gertatuko den, iñoiz izatera ta zerbait izatera irixten bada; baiña liburu ortan eman zaiguna ez da euskeranto bat. Ori euskera da alde guztietatik, bai itzetan, bai joskeran, bai aditzean; euskera zaharraren kutsu ederra dakarrena, baiña gaurkoa, berria, ardo zaharrak kupelean utzi zuen ardoarekin egiten den ardo berria bezela.

Hirugarren kritika Txillardegirena izan zen, denetan luzeena (Larresoro: 1972). Kritika honek irakurtzea merezi du garaiko kezkak eta euskara batuarenak bere ikuspegi jakin-garritik azaltzen baititu. Liburuaren balioaz eta errenteriarren lanez aipatu ondoren, garai hartan bizi-bizi zegoen

Arantzazuko Txostenaz (1968) eta Baionakoaz (1970) ari da batez ere. Garai hartan zeuden bi proposamen nagusiez ari da. Mitxelenak gipuzkera proposatzen zuen aditz paradigmaren oinarritzat eta Arestik, ostera, lapurtera. Liburuaren bigarren atala “txostenak” deritzana osatuago nahi zuen Txilardegik. Hala eta guztiz ere guztiz bikaintzat du Patxi Altunak egin zuen aukera:

P. Altunak prestatu duen bildumak ez du akatsik: eta, besteak beste, idazle eta saiolari presntatu digu Mitxelena. Gure Errenderiarra hizkuntzalari soitzat ezagutu ohi delarik, egoki datoz haren idazle-nortasunaren atal horiek; eta artikulu haue-tan Baroja, Escudero, Martin Santos, Charles Chaplin, eta abarren argitan ikus dezakegu Mitxelena.

5. Mitxelenaren “Hire itzalak gu baitan dik lurmen” testua

Mitxelenak idatzitako hilberriak izugarri poetiko eta onak iruditu zaizkit beti. Irakurri ditudan euskarazko onenak aukuratu beharko banitu, Mitxelenarenak eta Aingeru Irigarainenak egingo nituzke. Idazleek hilberriak sortutako pena handiaren mataza emozio eta arnasa poetiko handian harildu dutelako. Hilberriak idazten dituenak –hil eta berehala, adiskidetasunak eta miresmenak bultzaturik gehienetan– testu freskoak, benetakoak, bihotzak diktatuak izan ohi direla iruditzen zait. Halakoak dira, esaterako, Mitxelenak maite eta estimatzen zituen zenbait lagun eta idazleri eskainiak: Luis Martin Santos, Pio Baroja, Orixe. Hiru idazle horiei eskainitako testuak guztiz antologikoak direnez gero, Patxi Altunak ondo asmatu zuen idazle errenteriarren lorategia eratu zuenean. Hiru idazle horiei eskaini zien maila berekoa dugu Mitxelenak Joan Ajuriagerrari eskaini ziona.

Testu hau *Deia* egunkarian agertu zen, 1978. urteko abuztuaren 26an, Joan Ajuriagerra hil eta hurrengo egunean. *Hire itzalak gu baitan dik lurmen* izenburuaren azpian egilea-

HIRE ITZALAK GU BAITAN DIK LURMEN

Gurasoak hiltzen zaizkigunean bakarrik omen gara umezurtz, hiztegiak dionez. Ezinezko dirudi, beraz, honen arabera, maizago umezurtz gelditzea.

Halaz guztiz, mila bider hiltzen omen da koldarra, heriotzaren beldurrez. Orobat guk, haragizko gurasoak galdu ondoan ere, behin eta berrirori senti dezakegu umezurztasunaren samina, aski luzea baldin badugu bizia. Gurasoen pareko gintuen zaharrago eta zuhurragoen sailetik bat eta beste galtzen dugunengan: maisu jakintsuak, gidari trebeak, buruzagi tinkoak.

Ezagutu, presondegian ezagutu nuen nik Joan Ajuriagerra; espetxean, bestela esan, han atera zuen aldizkariaren izenaz baliatzen bagara: Dueson, Larrinagan, Burgosen, nik eta beste hainbestek igaro ditugun ordurik beltzenetan. Eta ez ziren behar bada beltzenak, geldi bedi hau argi eta garbi, gure bizia larri zebilelako edota giltzapean geneuzkatela, Jainkoak daki noiz arte. Ez Maite genuen munduaren hondamendiak naigabetzen gintuen gainera, pozbiderik inon aurki ezin zezakeen naigabez. Han erori baino lehen galdua genuen eusko lurra, Espainiaz erabat jabetu zen Franco eta bazirudien honek adiskide zituen otso amorratuek lurbira osoa menderatu behar zutela.

Estualdi hartan ikasi genuen, noraezean, gizatalde urri bati begiratzen eta gizatalde horretan Ajuriagerrari. Geure ezerezean esku hutsik geun delarik, hor genuen habea, ahuleriaren indargarri, sostengua, itzaropidea. Eta ez esan ez zela arrazoizko, arrazoi hutsez bizitzea ~~gaitz eta are~~ ezinezko baita zenbait orduz.

Urrutitik ikusten nuen nik hasiera hartan, baina inguruan gintuen paretatzar haiek elkarrenganatzten zuten urrutikoena ere. Buruzagi nuela irakasle eta ikaslagun izan nuen gero, bultzari eta eragile: hitz batez, adiskide Adiskidetasun horrek, dakidenez, ez du inoiz goibelaldirik ezagutu.

Alderdiko eta alderdiaren gizona zen, inoiz holakorik izan bada, berrogei urteren sabel ilunetik bizirik atera duen Alderdi batekoa eta bate-na. Eta, halaz guztiz, urte haietaz eta baita gerokoez ere oroitzen garenean, ez da hori agian lehendabizi gogora datorkiguna. Beharrak eta ezinak batu gintuen lagunarte latz hartan, ez zuen hark inolazko batzuen eta besteen arteko berekuntzarik egin. Eta ez dut uste hango inork hau ukatuko duenik.

Aspaldian, bazkaltzen bildu ohi ginen urtean behin, berak biltzen gintuelako bestek baino areago, Burgosen egonak eta inguruko zenbait. Eta azken aldean ekainaren lehen igandean egiten ziren otorduak ez da izan, bat ginen artean, ez alderdi batekorik ez bestekorik, ez abertzalerik eta abertzale ez zenik. Igaroak igaro, ez ote genuen guztiok halako abertzale kutsuren bat hartu? Beste zerbaite ere erantsi behar da hemen. Ez zaio sekula inori aterik itxi euskotarra ez zelako: zabal-zabalik zeuzkan fazismoaren aurkako borrokan lagun izan genuenak.

Egingo nuke egun hau zela Ajuriagerrarentzat urteak zuen ede-

rrena, bihotz bera, baita belaxka ere, izkutatzen baitzuen bekain usuen azpiko be-
tazalen zirritu meharrak. Aurten, damurik, ez zen agertu eta, hau larria, ez zaie
aurrerantzean berriz agertuko bizirik dirautenei. *lana*

Kapitanaz, buruzagiaz, oroitzen zen Whitman Lincoln hil
zutenean. Guri, urteen joanak berdindu gaituelako edo, lagun eta adiskide izanik
lagun eta adiskide baino gehiago zena datorkigu gogora: anaia nagusia, Eibartarrek
esaten duten bezala, gurasotzako anaia zaharrena.

K. MITXELENA

ren izena dator: Koldo Mitxelena, Euskaltzaindikoa. Deia egunkarian testua oker askotxorekin argitaratu zen. Iñaki Anasagastik argitaratu zuen *Juan Ajuriaguerra en el corazón/ [Joan Ajuriaguerra] bibotzean* liburuan ere testu bera argitaratzen da baina ez da esaten nondik jaso den (Anasagasti 2008, 211-213). Joan Ajuriaguerraren omenezko liburu horretan zenbait oker zuzentzen badira ere, beste zenbait eransten zaizkio.

Jatorrizko testu makinatuarekin batean eta bestean egingidako okerrak zuzendu ditugu. Gure edizioan Mitxelenak idatzi zuen bezelaxe transkribatu dugu, gaurko arauetara moldatu gabe.

HIRE ITZALAK GU BAITAN DIK LURMEN

Gurasoak hiltzen zaizkigunean bakarrik omen gara umezurtz, hiztegiak dionez. Ezinezko dirudi, beraz, honen arabera, maizago umezurtz gelditzea.

Halaz guztiz, mila bider hiltzen omen da koldarra, heriotzaren beldurrez. Orobat guk, haragizko gurasoak galdu ondoan ere, behin eta berriro senti dezakegu umezurztasunaren sami-

na, aski luzea baldin badugu bizia. Gurasoen pareko genituen zaharrago eta zuhurragoen sailetik bat eta beste galtzen dugunean: maisu jakintsuak, gidari trebeak, buruzagi tinkoak.

Ezagutu, presondegian ezagutu nuen nik Joan Ajuriagerra; espetxean, bestela esan, han atera zuen aldizkariaren izenaz baliatzen bagara: Dueson, Larrinagan, Burgosen, nik eta beste hainbestek igaro ditugun ordurik beltzenetan. Eta ez ziren behar bada beltzenak, geldi bedi hau argi eta garbi, gure bizia larri zebilelakoze edo giltzapean geneuzkatelako Jainkoak daki noiz arte. Ez. Maite genuen munduaren hondamendiak nahigabetzen gintuen gainera, pozbiderik inon aurki ezin zezakeen nahigabez. Han erori baino lehen galdua genuen eusko lurra, Espainiaz erabat jabetu zen Franco eta bazirudien honek adiskide zituen otso amorratuek lurbira osoa menderatu behar zutela.

Estualdi hartan ikasi genuen, noraezean, gizatalde urri bati begiratzan eta gizatalde horretan Ajuriagerrari. Geure ezerezean esku hutsik geundela, hor genuen habea, ahuleriaren indargarri, sostengua, itxaropidea. Eta ez esan ez zela arrazoizko, arrazoi hutsez bizitza gaitz eta are ezinezko baita zenbait orduz.

Urrutitik ikusten nuen nik hasiera hartan, baina inguruan genituen paretatzar haiek elkarrenganatzan zuten urrutikoena ere. Buruzagi nuelarik, irakasle eta ikaslagun izan nuen gero, bultzari eta eragile: hitz batez, adiskide. Adiskidetasun horrek, dakidanez, ez du inoiz goibelaldirik ezagutu.

Alderdiko eta Alderdiaren gizona zen, inoiz holakorik izan bada, berrogei urteren sabel ilunetik bizirik atera duen Alderdi batekoa eta batena. Eta, halaz guztiz, urte haietaz eta baita gerokoez ere oroitzen garenean, ez da hori agian lehendabizi gogora datorkiguna. Beharrak eta ezinak batu gintuen lagunarte latz hartan, ez zuen hark inolazko batzuen eta besteen

arteko berezkuntzarik egin. Eta ez dut uste hango inork hau ukatuko duenik.

Aspaldian bazkaltzen bildu ohi ginen urtean behin, berak biltzen gintuelako bestek baino areago, Burgosen egonak eta inguruko zenbait. Eta azken aldean ekainaren lehen igandean egiten ziren otorduetan ez da izan, bat ginenon artean, ez alderdi batekorik ez bestekorik, ez abertzalerik eta ez abertzale ez zenik. Igaroak igaro, ez ote genuen guztiok halako abertzale kutsuren bat hartu? Beste zerbait ere erantsi behar da hemen. Ezzaio sekula inori aterik itxi euskotarra ez zelako: zabal-zabalik zeuzkan fazismoaren aurkako borrokan lagun izan genuenak.

Egingo nuke egun hau zela Ajuriagerrarentzat urteak zuen ederrena, bihotz bera², baita belaxka ere, izkutatzen baitzuen bekain usuen azpiko betazalen zirritu meharrak. Aurten, damurik, ez zen agertu eta, hau lana³, ez zaie aurrerantzean berriez agertuko bizirik dirautenei.

Kapitanaz, buruzagiaz, oroitzen zen Withman, Lincoln hil zutenean. Guri, urteen joanak berdindu gaituelako edo, lagun eta adiskide izanik, lagun eta adiskide baino gehiago zena datorrigu gogora: anaia nagusia, eibartarrek⁴ esaten duten bezala, gurasotzako anaia zaharrena.

Bibliografia hauta

ANASAGASTI, Iñaki (2008): *Juan Ajuriaguerra en el corazón/[Joan Ajuriaguerra] bihotzean*.

ARANALDE, Joxe Mari (1972): "Mixelenaren idazlan hautatuak", *Zeruko argia*, 483 zenbakia, 7 or.

² Testu makinatuan *bihotz bera* dator eta ez *bibozbera*.

³ Mixelenak makinaz *larria* idatzi badu ere, eskuko zuzenketa eginez *lana* jarri du azpian.

⁴ Testu makinatuan *Eibartarrek* dator.

BENGOETXE (1972): "Mitxelenarekin elkar hizketan 'Mitxelena-ren Idazlan Hautatuak' argitara berria", *Zeruko argia*, 483 zenbakia, 1 or.

SAN MARTIN, Juan (1973): "Mitxelenaren lan hautatuak", *Egan*, 111-112.

ENPARANZA, Jose Luis "Larresoro" (1972): "Mitxelenaren idazlan hautatuak", *Zeruko argia*, 484 zenbakia, 7 or.

IBARZABAL, Eugenio (2001): *Koldo Mitxelena*, Erein.

MITXELENA, Luis (1972): *Mitxelenaren idazlan hautatuak*, Etor.

UGALDE, Martin (1974): *Hablando con los vascos*, Ariel.

Jabier Kaltzakorta